

KODE ETIKOA





AURKIBIDEA

1. GOBERNU ORGANOAREN MEZUA	3
2. XEDEA ETA APLIKAZIO ESPARRUA	4
3. ZAINZTENEN PRINTZPIO ETIKOAK ETA BALIOAK	5
4. JOKABIDE ARAU OROKORRAK	6
4.1. Legeak eta printzipio etikoak betetzea	
4.2. Pertsonak errespetatzea	
4.3. Laneko segurtasuna eta osasuna	
4.4. Garapen profesionala	
4.5. Ingurumena errespetatzea	
4.6. Askatasun sindikala	
5. JARDUTEKO PRINTZPIOAK	9
5.1. Zintzotasuna eta profesionaltasuna	
5.2. Erreputazio korporatiboa	
5.3. Aktiboak eta baliabideak era egokian erabiltzea	
5.4. Interesen arteko gatazkak	
5.5. Jabetza intelektuala eta industrialal	
5.6. Finantza informazioaren gardentasuna eta egokitasuna	
5.7. Zintzotasuna eta gardentasuna interes taldeekiko	
5.7.1. Eroskeria eta ustelkeriaren aurkako neurriak	
5.7.2. Opariak eta atentzioak	
5.7.3. Informazioaren konfidentzialtasuna eta tratamendua	
5.7.4. Bezeroekiko eta hornitzaileekiko harremana	
5.8. Gizartearekiko konpromisoa	
6. BETETZEA, KOMUNIKAZIOA ETA JARRAIPENA	15
6.1. Jarraipen batzordea	
6.2. Kanal etikoa	

1. GOBERNU ORGANOAREN MEZUA

Lankide agurgarriok,

Sorreratik bertatik, ZAINTZENek enpresa konpromisoa izan du bere jardueran parte hartu eta erakundearen eragina duten eragileekin edo bere langileekin. Konpromiso horren oinarrian ZAINTZENen funtzionamendua gidatzen duten printzipio etikoak daude, bere kultura korporatiboaren zati gisa.

Beti oso harro egon gara gure lanaren kalitateaz, ematen dugun esperientziaz eta profesionaltasunaz, eta gure balioen sendotasunaz eta gure egiteko eraz. Legezketasunaren eta etikaren defendatzaile sutsuak gara eta portaera hori sustatzen dugu lan egiten dugun merkatu guztietan.

Bermatu egin behar dugu, erakunde barruan nahiz kanpoan, guztiek ulertzen dutela gure jarduteko era. Gure arrakastaren gakoak dira gardentasuna eta zintzotasuna.

Honako dokumentu honek gure filosofia eta enpresa konpromisoa jasotzen ditu, gure ikuspegia eta negozio estrategia uztartzen ditu, erantzukizun sozial enpresarialeko praktikak, legezketasunarekiko menpekotasuna, jarduera etikoa eta gure portaeran nagusi diren balioak. Azken batean, ezinbestekoa da akziodun, administratzaile, zuzendari, bezero, erabiltzaile, hornitzaile, laguntzaile, lehiakide, gobernuko agintari, komunitate eta ingurumenarekiko errespetua bermatu eta mantendu ahal izateko.

Bere ezagutza eta betetzea garrantzitsua da gero eta lehiakorragoa den merkatu globalaren eskakizunetara egokitzen jarraitzeko, gure bezeroei eta langileei konfiantza emateko, konfiantza izan dezaten erakundeak barne prozesuak eta praktika etikoak inplementatu dituela, esparru nazionallean eta nazioartekoan onartutako portaera osoa eta profesionala bermatzeko.

Arrazoi horregatik, langile guztiek dute ZAINTZENen printzipio etikoak ezagutu eta betetzeko erantzukizuna, eta, halaber, ikus dezaketen portaera desagokien berri ematea, eskueran dituzten bideak erabilita. Gainera, babestu egingo dira hori egiten duten langileak, euren aurkako neurrien aurrean.

Animatu egin nahi zaituztet zuetako bakoitzak arduradun izaten jarrai dezan, gure laneko inguruan eta gizartean zintzotasun maila handienei eutsiz, enpresa fidagarri, etiko, garden, printzipiodun, baliodun eta norbanakoentzako errespetudun izaten jarrai dezagun.

2. XEDEA ETA APLIKAZIO ESPARRUA

ZAINTZENen Kode Etikoaren xedea da bertan lan egiten duten pertsona guztien portaera gidatuko duten printzipio etikoak jartzea. Era berean, printzipio horiek bete ahal izateko jokabideko jarraibide orokorrak ere eman nahi ditu. Azken helburua, bada, izango litzateke bere langile eta zuzendari guztiek onartu eta errespetatuko duten jokabide enpresariala sendotzen laguntzea.

Honako Kode Etiko hau abiapuntua izango litzateke, gure jarduera guztiei eragiten diena eta ZAINTZENen jarduteko oinarrizko printzipioak bere barne dituen, horiek inspiratu eta garatzen dituztelarik antolaketa eta funtzionamenduko arauak eta barne prozedurak.

Horrekin *betetze kultura* bat sustatu nahi dugu, langileen arteko harremanak bideratzeko, horiek bezeroekin, erabiltzaileekin, hornitzaileekin eta kanpo laguntzaileekin dituzten jarduerak orientatzeko, baita erakunde publiko eta pribatuekiko harremanak eta, oro har, gizartearekikoak ere. Dokumentuan jasotako jarraibideez gain, gure jokabide pertsonal eta profesionala beti zuzentasun, fede on, jokabide osotasun eta sen oneko printzipioetan oinarrituko da.

ZAINTZENeko arlo guztietako langile guztiei aplikatuko zaie, Aldi baterako Enpresa Elkartek barne, lan harremana zehaztuko duen hitzarmen mota, duten kokapena edo lana egiteko lekua edozein dela ere.

ZAINTZENek konpromisoa hartuko du bezeroek, erabiltzaileek, negozio bazkideek, hornitzaileek eta gurekin lan egiten duten azpikontratek kodearen edukia ezagutu dezaten eta dokumentu honetan jasotako jarrera eta balio bertsuetan oinarritu daitezen jarduteko orduan.

Kode honen eraginerako, "ZAINTZEN" diogunean ZAINTZEN, SA esan nahi dugu.

3. ZAINZENEN PRINTZIO ETIKOAK ETA BALIOAK

ZAINZENen helburua da Kode Etiko hau aplikatuko zaien pertsonak eta erakunde guztiek jarraian aipatzen diren printzipio etikoak bete ditzaten:

- Indarrean dagoen legedia errespetatzea: aplikatzekoak diren legeak bete eta ontzat hartzea.
- Giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatzea, ingurune naturala zaintzen ahalegintzea eta erkidegoen garapenean eta ongizatean laguntza ematea.
- Lehendabizi pertsonak: lan baldintza onak eskaintzea, laneko eskubideak errespetatuz.
- Gizarteak eskatzen dituen zerbitzu eskaera berriak kontuan hartzea eta horiei erantzuna ematea.
- Berrikuntza, hobekuntza sozialak eta ingurumenekoak ekarriko dituzten teknologia berriak garatzeko.
- Gure bezeroen gogobetetzea, zintzotasuna, berdintasuna, egiazkotasuna, konpromisoak betetzea, lehia askea eta gardentasuna sustatuz. Kaudimen ekonomikoa mantentzea eta gure baliabideak zuzen kudeatzea, era iraunkorrean.
- Gure langileen prestakuntza eta garapena; laneko bizitza eta familiakoa kontziliatzeko politika aktiboak eta berdintasun printzipioa errespetatzea.
- Ingurumena errespetatzea eta gure langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko prebentzio neurriak aplikatzea, gure jarduera guztien garapenean.

4. JOKABIDE ARAU OROKORRAK

4.1 Legeak eta printzipio etikoak betetzea

ZAINTZENeko langile eta zuzendari guztiek indarrean dauden legeak bete behar dituzte jarduera enpresariala eta profesionala garatzen duten lekuan, legeen izpiritua eta horien xedea kontuan hartuz eta jarduera guztietan jokabide etikoa izanik.

Langile guztiek ezagutu behar dituzte euren lan arloari eragiten dioten legeak, behar izanez gero arduradunari edo dagokion lekuan informazioa eskatuta. Informazio finantzarioa erregistratu, landu, berrikusi eta ematen parte hartzen duten langile guztiek lege araudia ezagutu eta bete behar dute, hala nola euren lanaren garapenari eragiten dioten barne kontroleko arauak eta prozedurak, eskaintzen den informazio finantzarioa fidagarria dela bermatzeko.

Langileetako inork ere ez dio nahita lagunduko beste pertsona bati legeren bat ez betetzeko bada, eta ez du parte hartuko jardueraren batean asmoa legezkotasun printzipioa ez errespetatzea bada.

4.2 Pertsonak errespetatzea

ZAINTZENen politika eta plan estrategiko guztiak gure balio korporatiboen isla dira. Gure Giza Kapitala da ZAINTZENen arrakasta oinarritzeko balio garrantzitsuenetakoa, gure zerbitzuetan balio erantsia sortuz pertsonak kudeatzeko politika aktiboaren bitartez.

Horregatik guztiagatik ZAINTZENen hazkunde orekatuan sinesten dugu, geure eginez esku artera datozkigun erronkak eta erantzukizunak; horrela, bada, bide berriak ireki ditugu garapen enpresarial eta profesionalerako gizartearekin dugun konpromiso aktiboaren bitartez, hori guztia ZAINTZENeko giza taldea, proiektu eta konpromiso komunarekin identifikatutako taldea, osatzen duten pertsonen esker.

Errespetua eta duintasuna:

ZAINTZENek pertsona guztiak errespetuz eta duintasunez tratatzen ditu, pertsona bakoitzaren desberdintasun kulturalak eta partikularrak baloratuz eta langile gisa dituzten eskubideak aitortuz, lanera sartzeko eta lanean garatzeko aukera berdinak eskainiz.

Zuzendariek nahiz langileek izan beharreko komunikazioa sarri gertatu eta errespetuzkoa izango da, elkarri entzunda, lanpostua edo izaera edozein dela ere.

Langile guztiek dute beharra beste kideekin, arduradunekin eta menpekoekin era justuan eta errespetuzkoan tratatzeko, lan giro errespetuzkoa eta lan giro positiboa ere sortuz.

Langileetako inor ez da diskriminatua izango adin, arraza, genero, erlijio, sexu orientazio, ezkontza edo amatasun egoera, iritzi publiko edo jatorri kontuengatik.

Lan harremana hasterakoan, konpainiak ez die bere langileei eskatuko bere zaintzapean gordailurik edo nortasun agiririk uzteko. Langile guztiek ezagutu behar dituzte euren lanaren betebeharrak eta oinarrizko baldintzak eta ez da onartuko 16 urtetik beherakoek lan egitea (betiere adin gutxikoen lanari buruz indarrean dagoen legedia betez).

Oreka profesional eta pertsonala:

ZAINTZENek bizitza profesionalaren eta bizitza pertsonalaren arteko kontziliazioa sustatzen du, eta animatu egiten ditu zuzendariak eta langileak euren errendimendua ikuskatzeko ardura dutenekin lan egitera, esparru horretan sor daitezkeen zailtasunei irtenbide egokiak eskaintzeko.

Enpresak bermatu egingo du laneko ordutegia betetzea, indarrean dagoen legedia betez.

Jazarpena:

Debekatuta dago jazarpena, zirikatzea edo abusu sexuala, era edozein dela ere: ahozko jazarpena, jazarpen fisikoa, beldurraraztea, etsaitasuna, eta enpleguarekin, jardueraren ebaluazioarekin, sustapenekin edota igoerekin baldintzatutako mesede eskatzeak edo sexu portaerak eskatzeak. Jazarpen egoera bat ikusten duen langile orok edo horrelako egoera baten biktima dela uste duenak horretarako jarritako Protokoloaren bidez jakinaraziko du, ikerketa bat egin dadin, konfidentzialtasun zorrotzarekin.

4.3 Laneko segurtasuna eta osasuna

ZAINTZENek Laneko Arriskuen Prebentzioko politika oinarrizko balio gisa hartzen du lerro hierarkiko bakoitzean egiten diren jarduera, erabaki, agindu eta jarraibide guztietan, pertsonak kudeatzeko eta horien osasuna prebenitzeko bitarteko egoki gisa.

ZAINTZENek exijitzen du lanpostuko segurtasuna beti kontu lehenetsia izatea: bere langileei laneko inguru seguru eta egonkorra eskainiko die eta konpromisoa hartu du legeak jarritako laneko arriskuen prebentzioko neurriak une oro eguneratzeko. Langile guztiak arduratuko dira osasun eta segurtasun arauak zorrozki betetzen.

Gainera, arrisku jarduerak egiten dituztenean esleitutako ekipamenduaren erabilera arduratsua egingo dute eta ezagutzak partekatuko dituzte kideen eta menpekoen artean arriskuen babeseko praktikak betetzea sustatzeko.

4.4 Garapen profesionala

ZAINTZENek bere langile guztiei eman nahi dizkie garapen profesionaleko aukerak. Horretarako, langileen prestakuntza politika baten aldeko apustua egin du, langileek trebatu eta garapen pertsonala eta profesionala izan dezaten, lana egiteko orduan errendimendu handiena lortu ahal izateko.

Langile guztiek parte hartu dezakete era aktiboan ZAINTZENek euren eskura jartzen dituen prestakuntza planetan, norberaren garapenean inplikatur eta konpromisoa hartuz beharrezko ezagutzak eta konpetentziak eguneratuta izateko.

4.5 Ingurumena errespetatzea

Ingurumena errespetatzea oinarrizko zutabea da ZAINTZENen jardueran, horregatik konpromisoa daukagu ingurumena zaintzeko eta kutsadura prebenitzeko, gure jardueren eragina ahalik eta txikiena izan dadin ingurumenean. Horren harira, ZAINTZENek bere langileei prestakuntza emateaz gain, ingurumeneko praktika onenak sustatzeko eta jarduerako metodo arduratsuak bultzatzeko, beste hirugarrenekin eta enprekin ere lankidetzan dihardu konpromiso hori har dezaten.

4.6 Askatasun sindikala

ZAINTZENek errespetatu egiten du langileek sindikatuak osatzeko duten eskubidea, eurek libreki aukeratutako sindikatuko kide izatea eta negoziazio kolektiboa, indarrean dagoen legediak jasotzen dituen gainerako eskubideekin batera.

5. JARDUTEKO PRINTZIBIOAK

Negozio arlo desberdinen integrazioari esker, kudeaketan nahiz zerbitzuak ematerakoan, bezeroaren beharrei erantzun globala eta kalitatekoa eman ahal dugu, eta bere itxaropenak bete, betiere etengabeko hobekuntza bilatuz.

Kudeaketan bikainak izateak gutako bakoitzaren jokabide leiala eta etikoa barneratzen ditu. Gure jarduteko printzipioek erantzukizunei eta betebeharrei buruzko jarraibideak dituzte, bai bakarkakoak, baita kolektiboak ere, gure

langileekiko, bezeroekiko, erabiltzaileekiko, hornitzaileekin, akziodunekiko eta beste interes talde batzuekiko.

5.1 Zintzotasuna eta profesionaltasuna

ZAINTZENeko langileek eta zuzendariak zintzotasunez, profesionaltasunez eta enpresaren interesak errespetatuz jardun behar dute, jarduera eraginkorraren bitartez eta zerbitzu guztietan bikaintasunera eta kalitatera bideratuta.

Era berean, langile guztiek laguntzeko izpiritua izan behar dute, enpresaren helburuak eta interesak lortzea ahalbidetu dezaketen ezagutzak edo baliabideak ZAINTZEN osatzen duten beste antolaketa atal eta pertsonen eskura jarritz.

5.2 Erreputazio korporatiboa

ZAINTZENek bere jarduera gizartean eragin nabarmena duten makina bat arlotan gauzatzen du. Bere erreputazioa kanpora proiektatzea lortzen den pertzepzioaren menpekoa da, ez bakarrik garatutako jarduera bakoitzarekin, baizik eta langile guztien jokabidearekin ere bai. Horregatik, zuzendariak eta langileak dira ZAINTZENen irudia eta erreputazioa zaintzeko arduradunak, Gure jardueren oihartzun publikoa nabarmena izan daitekeenean, saihestu egin behar da ZAINTZENen izena edo irudia erabiltzea aukera politiko edo iritzi korrante jakin baten onurarako.

Era berean, langileek ezingo dute publizitate engainagarriarik egin enpresaren jarduerarekin lotuta eta saihestu egin beharko dute edozein jokabide mota, lehiakideentzako gehiegizkoa denean edo legez kontrakoa izan daitekeen edozein murrizketa.

5.3 Aktiboak eta baliabideak era egokian erabiltzea

ZAINTZENek bere langileen esku jartzen ditu euren jarduera profesionala betetzeko behar dituzten baliabide guztiak.

ZAINTZENen aktiboak eta baliabideak zuzendari eta langile guztiek zaindu behar dituzte, bakarrik bere jarduera esparruan propioak eta bidezkoak diren xedeetarako erabilia. Izaera murriztailerik gabe, hurrengoak dira ZAINTZENen ondasunak eta aktiboak:

- Negozioari, pertsoneri eta produktuei buruzko informazioa.
- Informazioa prozesatzeko sistemak, artxibategiak, sistema elektronikoak, ordenagailuak eta posta elektronikoa barne.

- Txostenak, teknologia, jabetza intelektual eta industrialak.

5.4 Interesen arteko gatazkak

ZAINTZENek uste du bere langileekin duen harremana interes komunitatik sortzen den leialtasunean eta fede onean oinarritu behar dela. Enpresak errespetatzen du langileek beste jarduera finantzario edo enpresarialetan parte hartzea, baina beharrezkoa da jarduera horiek ez sortzea interes gatazkarik enpresarekiko edo horrelakotzat interpretatzeko modukoak izatea.

Interesen arteko gatazkak sortzen dira erabakiak hartu behar dituen pertsonaren independentzia eta inpartzialtasuna konprometituta gelditzen direnean erabakiaren emaitzan beste maila bateko interesek eragiten dutelako, batez ere norberaren onurarako. Izaera pertsonaleko interes gatazkak sor daitezke, esaterako, inbertsio pertsonalengatik, sendikoek egindako lanengatik edo aurretiazko lan harremanengatik. Zuzendariak eta langileek ziurtatu egin behar dute interes gatazkak saihestu egiten dituztela, une oro independentzia mantentzen dutela. Egoeran baten aurrean zalantzak egon badaitezke, langileak bere arduradunari jakinarazi beharko dio eta horrela saihestu erabaki bat hartzea non susmoa egon daitekeen enpresaren interesen aurka jardun dela.

5.5 Jabetza intelektual eta industrialak

ZAINTZENeko langileek euren lana egitean sor ditzaketen berrikuntzen eta asmakizunen erabilera eta ustiaketa eskubideak, markak, patenteak, asmatze ereduak, egile eskubideak, marrazki eta modelo industrialak edo beste edozein jabetza intelektual edo industrial sortzen direnean, ZAINTZENek izango dira eta berak babestuko ditu legez jarritakoaren arabera.

5.6 Finantza informazioaren gardentasuna eta egokitasuna

Kontabilitate eta finantza alorreko erregistro eta txosten guztiek era egokian jaso behar dute finantza egoera, bai eta gure eragiketen emaitza ere. Finantza informazioa lantzerakoan kontabilitateko arauak eta printzipioak zuzentasunez eta osotasunez jarraitzea eskatzen da eta barne prozesu eta kontrol egokiak izatea kontabilitatea eta finantza txostenak osoak eta fidagarriak izanda, legezko betebeharrak aplikagarri guztiak betetzen dituztela bermatzeko.

Transakzio finantzario eta komertzialetan arreta berezia jarri beharko da transakzio horiek egiten ari diren pertsonak edo erakundeek ez dutela zintzo jokatzeko susmatzen bada, ez legezko jardueretatik datozen kapitalak zurtzea saihestu ahal izateko. Horregatik guztiagatik, Barne Auditoretza atalarekin lankidetzan arituko da eta bere lana erraztuko da, eta baita kanpo auditoreena eta eskumendun agintariena ere.

5.7 Zintzotasuna eta gardentasuna interes taldeekiko

Inolaz ere ez dira onartuko iruzur izaerako praktikak, horrelakotzat hartuta pertsona batek onura bat lortu nahi izatea era desegokian ZAINZENEen edozein informazio, aktibo edo baliabide erabiliz.

Interes taldeekiko harremanetan, ZAINZENEko langileek konpromisoa hartzen dute lankidetzara eta elkarrizketa sustatzeko, eta harreman gardenak eta arinak izateko.

5.7.1 Eroskeria eta ustelkeriaren aurkako neurriak

ZAINZENEk adierazten du bere jarrera konpainiaz kanpoko pertsonen borondatearen gainean eragitearen aurkakoa dela, etikoak ez diren praktikak erabilia onuraren bat lortzeko.

Horren harira, langileek ezin dute legez kanpoko ordainketarik egin edo eroskeria kasuak erabili, edo opariak, hobariak edo abantailak eman erakunde, pertsona, agintari publiko edo gobernukoei emakida, kontratu, onarpen edo abantailaren bat ziurtatzeko, norbere onurarako edo erakundearen onurarako.

Era berean, langileek ezingo diete eskaini edo eman, era zuzenean edo zeharkakoan, diruzko ordainketarik, gauzakorik edo bestelako onurarik, edozein erakunde publiko edo pribaturen edo alderdi politikoren zerbitzura dagoen edo kargu publikorako hautagai den edozein pertsonari edo harengandik horrelakorik hartu, legez kanpo negoziokoak lortu edo mantendu edo beste abantaila batzuk lortzeko asmoarekin.

5.7.2 Opariak eta atentzioak

ZAINZENEko langileek eta zuzendariek eta politika hau aplikatu dakiekeen negozioko bazkideek ez dute inolaz ere oparirik, esku erakutsirik, atentziorik edo hospitalitatearik, abantailarik edo behar ez den konpentsaziorik eskatuko, aginduko, eskainiko, jasoko edo emango, funtzionarioak edo agintari fisikoak, pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, erosteko xedearekin, maila nazionalen edo nazioartekokoan, norberaren onurarako, erakundearen onurarako edo hirugarren baten onurarako.

Debekatuta dago opariak, esku erakutsiak, atentzioak edo hospitalitateak eman edo hartzea:

- a) Urtean ehun eta berrogeita hamar euroak gainditzen direnean.
- b) Agintari edo funtzionario publiko bati ematen zaionean edo harengandik datozenean.

c) Herralde bakoitzeko legediak debekatzeko dituenean.

Bestarik gabe sustapena egiteko opariak direnean, kortesia hutsezkoak, balioa txikia denean, inoiz ez urtean ehun eta berrogeita hamar euro baino gehiagokoak, onartu ahal izango dira, bereziki emailearen logoa txertatuta badute.

Opari, esku erakutsi, atentzio edo hospitalitatearen izaerak zalantzaren bat sortzen badu, dagokion arduradunari jakinaraziko zaio eta, komeni bada, Zigorra Betetzeko Organoari. Betiere kontuan hartuko dira zeintzuk diren lekuan lekuko erabilerak eta ohiturak, arrazoizkoa edo egokia zer izan daitekeen ulertzeko, horrela jokatzeak ez badu inongo betebeharririk sortzen ez emailearentzako eta ezta hartzailearentzako ere, ez badio objektibotasunari eragiten eta, halaber, ez badakar legearen edo barne arauaren hausturarik.

5.7.3 Informazioaren konfidentzialtasuna eta tratamendua

Arau profesionalek eta lan gehienei aplikatzeko modukoak diren hitzarmen baldintzek eskatzen dute bezeroen, erabiltzaileen eta langileen informazioari buruzko konfidentzialtasuna mantentzea, informazioa ez bada ezaguna eta lana egitearen bitartez jaso bada. Betebehar horrek jarraitu egingo du ZAINZENEkiko lan harremana bukatutakoan ere.

Zerbitzua eskaintzerakoak darabiltzagun datu pertsonalen erabateko konfidentzialtasuna gordetzeko lege dagoen betebeharra betetzen du ZAINZENEk, bai gure langileena, bai eta erabiltzaileena eta bezeroena ere, guztiei datu horien kudeaketan beharrezko den konfiantza emanda.

Izaera pribatuko edo konfidentzialeko informazioa ez zaie hirugarrengoei emango eta arreta berezia jarriko da informazio hori nahi gabe zabal dadin.

Edonola ere, Segurtasun Dokumentuan eta indarrean dagoen legediaren arabera eta informazioa tratatzeari buruzko lanen prozeduretan ezarritakoaren arabera jokatuko da.

5.7.4 Bezeroekiko, erabiltzaileekiko eta hornitzaileekiko harremana

ZAINZENEk uste du bere bezeroak, erabiltzaileak, hornitzaileak eta enpresa laguntzaileak hazkuntza, errentagarritasun eta zerbitzu kalitatea hobetzeko helburuak lortzeko nahitaezko partaide direla eta, horregatik, bilatzen du konfiantzan, elkarrekiko errespetuan, gardentasunean, konfidentzialtasunean eta lehia askean oinarritutako harremanak izatea.

Bezeroekin eta erabiltzaileekin dituzten harremanetan, langile guztien helburua izan behar da zerbitzuak eskaintzerakoan kalitate maila altuenak eta bikaintasuna lortzea.

Hornitzaileak eta kontratistak aukeratzeko euren arteko lehia sustatzen da, inpartzialtasunez eta independentziaz jokatzuz. Hornitzaileak eta kanpo laguntzaileak aukeratzeko prozesuetan parte hartzen duten langile guztiek inpartzialtasunez eta objektibotasunez dihardute, kalitate eta kostu irizpideak erabiliz, eta interes pertsonalen eta enpresaren interesen arteko talka saihestuz.

Era berean, bultzatu egiten dira hornitzaileek eta kontratistek honako Kode Etiko hau ezagutu eta euren egin dezaten bere edukia eta irismena.

5.8 Gizartearekiko konpromisoa

ZAINTZENek konpromisoa hartu du bere jarduerak sozialki arduratsuak izan daitezen, arreta berezia jarrita bere jarduerak burutzen dituen erkidegoetako kultur aniztasunaren eta printzipio eta ohituren errespetuan.

Gizartearekiko duen konpromisoa ZAINTZENek “CLECE Social” proiektuaren bidez bideratzen du. Pertsonekin duen konpromisoaren adierazpena da, ez dena ulertu behar enpresaren betebeharrak edo erantzukizun sozialaren alorrean diseinatutako estrategia gisa, baizik eta bere jatorriari eta garapenari atxikia daraman zerbaitez bezala.

“CLECE Social” proiektuak bere jarduerak bi ardatzetan oinarritzen du: Integrazioa eta Sentsibilizazioa. Konpainiak aurrera daramatzan jarduerak bi ardatz horietan oinarritzen dira eta hainbat kolektibori onura zuzenak eta zeharkakoak ematea dute xede.

Integrazioa: Kolektibo behartsuetako pertsonen integrazioaren bitartez aukera berdintasuna sustatzea, batez ere ezgaitasuna duten pertsonena, gizartean baztertuta gelditzeko arriskua duten pertsonena, genero indarkeria jasaten duten emakumeena, terrorismoaren biktimak eta langabetu gazteena.

Sentsibilizazioa: Biztanleria kontzientziatzea gizarteko kolektibo ahulenei bizi duten errealitateaz eta egoeraz.

ZAINTZENek konpromisoa hartu du bere jarduerak sozialki arduratsuak izan daitezen, arreta berezia jarrita bere jarduerak burutzen dituen erkidegoetako kultur aniztasunaren eta printzipio eta ohituren errespetuan.

Gizartearekin duen konpromisoa bere proiektu sozialaren bidez bideratzen du ZAINTZENek, pertsonekin duen konpromisoaren adierazpena dena eta ez dena ulertu behar enpresaren betebeharrak edo erantzukizun sozialaren alorrean diseinatutako estrategia gisa, baizik eta bere jatorriari eta garapenari atxikia daraman zerbaitez bezala.



Proiektu sozialak bere jarduera bi ardatzetan oinarritzen du: Integrazioa eta Sentsibilizazioa. Konpainiak aurrera daramatzan jarduerak bi ardatz horietan oinarritzen dira eta hainbat kolektibori onura zuzenak eta zeharkakoak ematea dute xede.

Integrazioa: Kolektibo behartsuetako pertsonen integrazioaren bitartez aukera berdintasuna sustatzea, batez ere ezgaitasuna duten pertsonena, gizartean baztertuta gelditzeko arriskua duten pertsonena, genero indarkeria jasaten duten emakumeena, terrorismoaren biktimak eta langabetu gazteena.

Sentsibilizazioa: Biztanleria kontzientziaztea gizarteko kolektibo ahulenek bizi duten errealitateaz eta egoeraz.

6 BETETZEA, KOMUNIKAZIOA ETA JARRAIPENA

Kode Etikoa nahitaez bete beharreko da aplikazio esparruaren barneko pertsona guztientzat.

ZAINTZENek Kode honen edukia komunikatu eta hedatuko du bere langile guztien artean eta baita hornitzaileen, kontratisten eta laguntzaileen artean ere. ZAINTZENen sartzan diren langile guztiek edo bertako kide bihurtzen direnek kodean jasotako printzipio etikoak eta portaera arauak onartu beharko dituzte.

ZAINTZENek espero du bere zuzendari guztiek eta langile guztiek kode hau beteko dutela konpromiso maila handiarekin eta, batez ere, zuzendaritzako, buruzagitzako edo ikuskapeneko egitekoak dituzten pertsonak, horiek kodea betetzen eredugarri izan behar baitute eta ez baitute onartu behar bertan jasotako estandarrak eta praktika eta portaera etikoak bete ez daitezen.

Langile guztiek dute betebeharra eta eskubidea gainera arduradunari idatzizko frogak aurkezteko, edo baita zuzenean Kanal Etikoa erabilita, baldin eta, fede onez, uste badute enpresan portaeraren bat dagoela ZAINTZENen legeak hausten dituen edo bere printzipioak eta balioak betetzen ez dituen. Arduradun hierarkikoek neurri egokiak hartuko dituzte planteatutako edozein gai konpontzeko.

ZAINTZENek ez du onartuko langileen aurkako diskriminaziorik edo errepresaliarik, arau hauste erreal edo ustezkoen inguruan, fede onez, informazioa emateagatik. Hala ere, asmo txarrez zuzena ez den informazioa emateak edo salaketa faltuak egiteak dokumentu hau ez betetzea ekarriko dute eta horren ondorioa izan ahal da zigor neurriak jasotzea.

6.1 Jarraipen Batzordea

Kode hau eta bere printzipioak bete egiten direla zaintzeko, gertakariak ebatzi edo bere interpretazioari buruzko zalantzak argitu eta kodea hobeto bete dadin neurri egokiak hartzeko bada Zigorra Betetzeko Organoa.

Honako dokumentu honetan jasotakoa betetzen ez duten pertsonak, lanpostua edo izaera edozein izanda ere, zigor neurriak jaso ahal izango dituzte, eta neurri horien artean dago lan harremana edo merkataritza harremana bertan behera uztea.

6.2 Kanal Etikoa:



ZAINZENEK badu Kanal Etiko bat ahalbidetzen duena edozein pertsonak salatzea Kode Etikoarekin eta bere printzipioekin bat ez datozen jokabideak eta bermatu egiten du salatailearen erabateko konfidentziasuna.

ALDAKETEN KONTROLA

ATALAK	IRUZKINAK
Eguneratze Orokorra	2018ko bertsioa (2018ko irailaren 27an onartutakoa)